

Donostian, 2019ko apirilaren 11n

## IDAZKARI NAGUSIARI

### ETXEBIZITZA HUTSEI KANONA JARTZEARI BURUZKO KONTROL MOZIOA

Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du. Mozioa hil honetako Ogasun Batzordean etxebizitza hutsei kanon bat jartzearen inguruan bideratutako interpelazioaren ondorio da.

### JUSTIFIKAZIOA

Etxebizitzaren 2015eko ekainaren 18ko 3/2015 Legeak honela dio 57.1 artikuluan: *“Etxebizitzaren jabetzaren funtzio soziala bete dadin sustatze aldera, kanon bat ezartzen da jenderik gabe dauden etxebizitzaren gainean. Kanon hori zergaz bestekoa izango da, jenderik gabeko etxebizitza deklaraturik dauden gainean ezarriko dute Euskal Autonomia Erkidegoko udalek, eta kontzeptu horrengatik lortutako diru-sarrerek lurzorua udal lurzoru-ondarea hornituko dute”.*

Kanona aplikatzeari dagokionez, Ogasun Batzordean adierazi genuen bezala, komunikabide batek jakinarazi zuen Eusko Jaurlaritzak ari zela lanean hori arautuko duen dekretuan. Batzorde hartan egindako interpelazioaren ostean, Ogasuneko zinegotziak adierazi zuen dekretua lehenengo izapidetze fasean dagoela, alegazioak aurkezteko epe formalaren aurrekoan, baina Eudelek dei egin ziela udalei, lehen zirriborroa aztertzeke.

Era berean, Ogasuneko zinegotziak batzordean adierazi zuen udal gobernua zalantzak dituela etxebizitza hutsei kanona jartzeko dekretuak arautuko dituen gai zehatz batzuei buruz; zehazki, etxebizitzak salgai edo alokagai 6 hilabete daramatzanean kanona jartzeko “merkatu prezioa” zein izango den definitzeari dagokionez. Uste dugu salbuespen hori ez dagoela justifikatua “merkatu prezioa” zer den zehaztuta ere; Izan ere, etxebizitza alokatzen ez bada edo merkatu librean saltzen ez bada, alokairuko programa publikoen esku jar daiteke, legearen helburu nagusia betetzeko: etxebizitzak helburu soziala betetzea, eta ez espekulatiboa.

Zinegotzi ordezkariak jakinarazi zuen zirriborroan badela beste salbuespen bat, alegia: pertsona batek udalerrri berean etxebizitza bat baino gehiago badu hutsik, horietako bat salbuetsita geratuko da. Salbuespen horrekin ere ez gaude ados; izan ere, pertsona batek etxebizitza bat baino gehiago badu hutsik udalerrri berean, denengatik ordaindu beharko luke kanona, hori aplikatzeko baldintza hutsik egotea baita.

Halaber, zinegotzi ordezkariak jakinarazi zuen badela beste salbuespen bat ere, etxebizitza modu eten batean erabiltzen denekoa, eta termino hori gehiago zehaztu beharko litzatekeela. Era berean, adierazi zuen dekretuak ez duela aurreikusten gutxienerako salbuetsirik, eta Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren udal ordenantza fiskalean, berriz, badela gutxienerako bat; horren ondorioz, haietako askok ez dute zerga hau ordaindu behar, batez besteko katastro balioa txikiagoa baita salbuetsitako gutxienerakoa baino.

Gure interpelazioan adierazi ere genuen, hirian etxebizitza hutsak 4.000/5.000 inguru direnez eta etxebizitza bat eskuratzea lehen arazoa denez donostiarrentzat, udal taldeek informazioa izan behar dutela, arazo larri horri aurre egiteko ekarpenak egin ahal izan ditzaten.

Azken batean, uste dugu udal gobernuak ahalik eta gehien inplikatu behar duela etxebizitza hutsen gaineko kanona tresna eraginkor bat izan dadin etxebizitzaren xede soziala bermatzeko eta jabetza eskusiboki espekulatiboari pizgarria kentzeko; izan ere, horren ondorioz, pertsona askok arazo handiak dituzte etxebizitza bat eskuratzeko.

Hori dela eta, hau da gure

## KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udaltzarak hertsatuki eskatzen dio udal gobernuari eman diezaiela udal taldeei etxebizitza hutsen gaineko kanona arautzen duen dekretuaren tramitazioari buruzko informazioa.
2. Donostiako Udaltzarak hertsatuki eskatzen dio udal gobernuari, etxebizitza hutsen gaineko kanona arautzen duen dekretua jendaurrean jartzeko tramitean, alegazioak aurkezteko aldia

irekitzean, proposa dezala salgai edo alokagai 6 hilabete daramatzaten etxebizitzei salbuespena kentzea, Eusko Jaurlaritzak bere testuan hala proposatzen badu.

3. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal gobernuari, etxebizitza hutsen gaineko kanona arautzen duen dekretua jendaurrean jartzeko tramitean, alegazioak aurkezteko aldia irekitzean, proposa dezala pertsona batek udalerrri berean hutsik etxebizitza bat baino gehiago izanez gero aplikatzen den salbuespena kentzea, kanona etxebizitza guztiei aplika dakien, salbuespenik gabe, Eusko Jaurlaritzak bere testuan hala proposatzen badu.

4. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal gobernuari 2020ko zerga ordenantzak izapidetzean aurkez dezala Ondasun Higiezinaren Zergaren Ordenantza Fiskaleko 23. artikuluko f eta k letretan ezarritako errekar gutik salbuesteko baldintzak kentzeko proposamena.

Sin.: Amaia Martin Garin

Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea